

ESPAZIORIK EZ EMAKUMEENTZAT



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Cañaveral lurmuturra (AEB), 1962ko otsailaren 20a. *Mercury-Atlas-6* suziria jaurti zuten espaziora, John Glenn astronauta *Friendship 7* kapsularen barruan zeramana. Lurraren inguruan hiru orbita egin zituen eta, hala, balentria lortzen zuen lehen estatubatuarra izan zen; Yuri Gagarin eta Gherman Titov sobietarrek aurreko urtean lortu zuten.

Hidden Figures filmak kontatu berri digu hainbat emakume beltzen kalkuluak funtsezkoak izan zirela misioaren arrakastan. Baina ez ziren espazioko lehen ezkutuan aritutako emakume bakarrak izan. NASA 1959an hasi zen zazpi gizonezko trebatzen astronauta izateko; Mercury Seven esan zieten. Baina programako ikerlari William Randolph Lovelace II.ak pentsatu zuen emakumeak egokia goak izan zitezkeela espaziora joateko: txikiagoak eta arinagoak izanik, erregai gutxiago beharko zen haiek espaziora bidaltzeko; espazioan egonaldi luzeak ere aurreikusten zituzten, eta emakumeek gutxiago jan ohi dute.

Hala, FLAT (Lehen Emakumezko Astronauta Trebatuak) programa jarri zen abian, estraofizialki (gerora Mercury 13 esan zitzaizen, baina ez ziren sekula NASAko Mercury programaren parte izan). Hegaldietan 1.000 ordutik gorako esperientzia zuten hogeit hamar emakumezko piloturi egin zizkieten zazpi gizonezkoei



Jerrie Cobb pilotua Mercury proiektuko espazio-kapsularen alboan, eta astronauta izateko proba fisiko eta medikoak egiten. Denak gainditu zituen, FLAT programako beste emakume batzuek bezala. Baina ez zieten espaziora joateko aukerarik eman.

egindako proba berak eta hamahiruk gainditu zituzten: Myrtle Cagle, Jerrie Cobb, Janet Dietrich, Marion Dietrich, Wally Funk, Sarah Gorelick, Jane "Jany" Hart, Jean Hixson, Rhea Hurrle, Gene Nora Stumbough, Irene Leverton, Jerri Sloan eta Bernice Steadman.

1962ko uztailan emakumeek Mercury programan ofizialki sartzeko esakera egin zuten. Erantzuna NASAko ordezkari George Low-ek eta John Glenn eta Scott Carpenter astronautek eman zuten agerraldi batean: emakumeek ez zituzten astronauta izateko derrigorrezko baldintzak betetzen.



NASA

Ingeniaritza titulua eta jet militarretako pilotu gradua behar zuten, baina garai hartan emakumeek debekatuta zeukaten Aire Armadako eskoletan ikastea, eta hegaldi zibiletako esperientziak ez ziren ezertarako balio izan.

John Glennek berak esan zuen: "Ere-mu honetan emakumerik ez izatea gure ordena sozialaren ispilu da". Eta ingeniari-tza titulurik izan gabe ere, bera programan onartu zutela aitortu zuen. Hurrengo urtean Valentina Tereshkova sobietarra izan zen espaziora joan zen lehen emakumea. ■



Ez zen MacDonald anaien asmoa

Richard eta Maurice MacDonald anaiek 1948an zabaldu zuten beren abizena zuen lehen hanburgesa jatetxea, San Bernardinon, Kalifornian (argazkian). Familiako negozioak arrakasta izan zuen berehala, eta 1953an frankizia bihurtu zen. Anaiei asmoa aberastea zen, jakina, baina ez zuten katea asko zabaldu nahi, jatetxe kopuru mugatua-

rekin moldatzeko asmoa zuten. Hala ere, 1961ean ez zioten Ray Kroc-en eskaintzari muzin egin: MacDonald's jatetxeak saldu zizkieten garai hartako 2,7 milioi dolarren truke.

Gaur egun, zabor-janaren paradigma 119 herrialdetan dago zabalduta eta 68 milioi bezero inguru hartzen ditu egunerok. ■